

# 2012 LEHIAKETA

IPUINAK OLERKIAK BERTSOAK

## Julene Azpeitia Lehiaketan hauexek izan daitezke partehartzaile:

- a) Durangoko eskoletako gazteak eta kanpoko eskoletan ari diren gazte durangarrak, 18 urte artekoak.
- b) 18 urtetik gorakoan, edonor.

Lanok euskaraz beharko dute idatzita egon, eta argitaratu gabeak beharko dute izan. Ipuinak, olerkiak edo bertsoak orrialde bakar batetik idatzita aurkeztu behar dira, eta ezaugarri tipografiko hauekin: Letra tipoa: Univers, Arial, Times New Roman edo antzeko bat. Puntua: 11 edo 12. Lerroen arteko tarte: 1,5.

- Lanean ez da egilearen daturik jarriko, lema bat soilik. Egilearen datuak (izen-deiturak, adina, maila, telefonoa, helbidea eta lanaren lema) kartazal batean sartuko dira eta azalean lanari jarri zaion lema bera idatziko da. E-mailez bidalitako lanen kasuan, ipuina, olerkia edo bertsoa fitxategi batean bidaliko da **“ipaina”, “olerkia”** edo **“bertsoa”** izenarekin eta egilearen datuak **“egilea”** izeneko beste fitxategi batean.
- Epaimahaia Durangoko Udaleko Euskara Sailak izendaturiko zenbait adituk osatuko dute.
- Ipuinak, olerkiak edo bertsoak **apirilaren 25a** orduko bidali behar dira posta arrutaz edo posta elektronikoz ondoko helbideetako batera:

**JULENE AZPEITIA LEHIAKETA Durangoko Udala – Euskara Saila**  
Barrenkalea 17 - 48200 DURANGO  
julenezpeitia@durango-udala.net

- Epaimahaiak **maiatzaren 31n** emango ditu ezagutzera irabazleen izenak. Gero, jendaurreko ekitaldi bidez banatuko dira sariak San Agustin kultur gunean.
- Epaimahaiak sariren bat ez ematea erabaki dezake. Bestalde, saritutako lan guztiak antolatzaileen esku geratuko dira, eta Udaleko Euskara Saila berauek argitaratzeaz arduratuko da.
- Lehiaketa honetan parte hartzeak arau hauek eta epaimahaiaren erabakia onartzea dakar.

## LEHIAKETAREN SAILAK

### DBHKO 3. ETA 4. MAILA

<b>IPUINAK</b> Luzera: 3-6 orrialde artekoa	<b>OLERKIAK</b> Luzera: 30-40 lerro	<b>BERTSOAK</b> Luzera: 5 bertso
---	---	-------------------------------------

**SARIA**  
150€

### LHKO 5. ETA 6. MAILA

<b>IPUINAK</b> Luzera: 1-3 orrialde artekoa	<b>OLERKIAK</b> Luzera: 10-20 lerro	<b>BERTSOAK</b> Luzera: 3 bertso
---	---	-------------------------------------

**SARIA**  
LIBURU SORTA  
(100€)

### BATXILERGOA - LANBIDE HEZIKETA

<b>IPUINAK</b> Luzera: 4-7 orrialde artekoa	<b>OLERKIAK</b> Luzera: 40-50 lerro	<b>BERTSOAK</b> Luzera: 6 bertso
---	---	-------------------------------------

**SARIA**  
200€

### DBHKO 1. ETA 2. MAILA

<b>IPUINAK</b> Luzera: 2-4 orrialde artekoa	<b>OLERKIAK</b> Luzera: 20-30 lerro	<b>BERTSOAK</b> Luzera: 4 bertso
---	---	-------------------------------------

**SARIA**  
LIBURU SORTA  
(100€)

### 18 URTETIK GORA

<b>IPUINAK</b> Luzera: 4-8 orrialde artekoa	<b>OLERKIAK</b> Luzera: 50-70 lerro	<b>BERTSOAK</b> Luzera: 6
---	---	------------------------------

**SARIA**  
300€

\***Oharra:** olerkietan, olerki bat edo olerki sorta aurkeztu ahal izango da, adin-tarte bakoitzean bere neurrikoa.